

GIZONA: 1968

(Prometeo trixtea)

Pauso batera daukak
hire azkeneko judizioa.

Han duk negarra ta nekea,
han duk egarri handia
ta ura eskuen puntan
ta ezin aoratu.

Juzgaturik hago, gizona.

Jaio hintzalako, heurekaia haizelako,
munduko ohiturengatik bildurtu haizelako,
amodioagatik birjina bat bezala.

Heure balore guztia batu ta gero
heure dretxoa deklaratu dukelako,
(gizon bat zan Kafka)
juzgaturik hago eta kondenaturik.

Jose Azurmendi

GIZONA: ESISTENTZIA 68

(Prometeo burdinetan)

Ezin sartu zaidak seriotan buruan
norbait haizela.

Libururen batean ikasi haut.

Ezin dut ez dit nahi
jendeongandik defenditu.
Abotsak entzun nahi dizkiat.
Infernuetan. Zeruetan
behera.

